



IKASCOFFEE


Kafea maite, liburu bizia



BALOREZKO PROPOSAMENA : IKASCOFFEE

→ Ideiaren jatorria

Askok erlaxatzeko aukera bat aurkitzen dugu irakurketan, beraz, espazio horiek liburuak erosteko eta irakurtzeko leku bat baino zerbait gehiago izatea bilatu genuen. Horregatik, kafe liburutegi bat etorri zitzagun burura, gure ingurunean faltan botatzen duguna : leku bat non kafe bat hartzen duzun bitartean erlaxatzeko eta liburu bat irakurtzeko aukera eskeintzen dizuna.



→ Kokapena

Negozia Zorrozaurretik hurbil egongo da kokatuta zehazki, Morgan Kalean 27.




Gaur egun degradatuta dagoen espazio bat berreskuratzen du Bilboko auzo berri honek. Etorkizun handiko eremua da eta hiriko gainerako eremuekin oso ondo konektatuta egongo da: bidegorria izango du; tranbiak uharte berria komunikatuko du barrutik, eta inguruko auzoekiko lotura hiru zubien bidez ezarriko da.

Gure kafetegiaren ingurunea toki alternatibo eta erakargarri bat da, bigarren eskuko merkatu kultur gunez inguratuta dago, aire zabaleko terraza duen taberna...

* Hemen uzten dugu bideo bat ikus dezazuen:

<https://vm.tiktok.com/ZMFEWvW1A/>



→ **Zer da gure negozioari balio ematen dion hori?**

Oso erreza, **low cost kafe liburutegi bat** dela; horregatik, liburu guztiak bigarren eskukoak dira (erostekotan prezio baxuak dituzte) eta nobedadea izango litzateke proposatutako fusioa. Gainera, gure establezimenduan egoteko tarifa batzuk ordaindu behar dira egongo zaren denboraren arabera, baina hauek ez dira batere altuak izango, ikasleentzat bereziki zuzenduta dagoelako.

→ **Antolamendua**


2 solairutan banatuta 4 zonaldeekin:

- ★ **Kafetegi-gunea.**
- ★ **Liburutegia:** bezeroak sofa/aulkietan eseri eta liburu on batez goza dezakete beren edariaz gozatzen ari diren bitartean.
- ★ **Ikasketa-eremua:** ordenagailuz, kargagailuz hornitutako gunea da
- ★ **Hizketaldietarako bideratutako zonaldea.**

Behe-solairua



1.solairua



Anne Andrés, Araia Arce, Eider González, Peio Irastorza eta Asier Novella

